

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Harrak hazi armiarma-zeta lortzeko

GIZAKIAK EZ DU LORTU armiarma-sarearen propietateak artifizialki imitatzeari. Armiarma-sareak malguak eta gogorrak dira aldi berean, eta bi konzeptu horiek ia kontrajarriak daudela esan daiteke.

Armiarma-zetak aplikazio ugari izan ditzake gure gizartean, kantitate egokian lortuz gero; erabil liteke biomedikuntzan, zauriak sendatzeko bentetan edota lotailuen konponketan, edota ordezkapenean, balen aurkako txalekoetan, automobilen airbagetan, kirol arropen...

Nola ekoiztu bada, produktu preziatu hori era masiboan? Armiarma "etxalde" bat antolatzea ezinezkoa da, armiarmek lur-eremuak defenditzen baitituzte sutuki, eta kasu askotan kani-balismoa ere praktikatzan baitute.

AEBetako Notre Dame unibertsitateko ikerlari talde batek aurrerapen handiak egin ditu jada ezaguna zen bide batean, har transgenikoen bidean alegia. Antza denez, posible izango da, ikerlarien arabera, eskala handian harrak ekoiztea eta haiengandik armiarma-zeta eskuratzea.



Usain txarraren aurkako galtzerdiak

KATALUNIako UNIBERTSITATE POLITEKNIKOAK, Sutran enpresarekin elkarlanean, usain txarra kendu eta oinetako larruazalean ondoriorik sortzen ez duten galtzerdiak ekoiztu ditu. Horretarako osasungintzan erabiltzen den zelulosazko zuntza tratatu dute eragin bakterizida duten eta hezetasuna xurgatzeko balio duten hainbat osagairekin. Laborategiko probetan *Staphylococcus aerus*-en %99,8 eta *Klebsiella pneumoide*-ren %97,8 desagertzaren direla ikusi dute. Bi bakterio horiek dira usain txarra sortzen dutenak, hain zuzen ere.

Askotan zilarra izaten da bakterizida gisa erabiltzen den substantzia, baina horrek kalte egiten dio azalari. Kasu honetan berriz, zinka erabili dute besteak beste.

Sutran enpresak ezaugarri berriak dituzten jantziak produzitzeko asmoa agertu du. Baina, zein salneurritan?



Ingeniaritza genetikoa eta industrialia uztartuta

Ordenagailuz lagunduriko diseinua, CAD siglekin ezagutzen dena, makinarian, arkitekturetan edota zirkuitu integratuetan erabiltzen den marrazteko teknologia da. Orain, AEBetan, ARN molekula multzoen irudiak egiteko erabiltzen hasi dira, ingeniari-tza genetikoari beste indar bat eman asmoz.

<http://ttiki.com/34878> (Gaztelaniaz)

Aurpegiko adierazpenen jatorria eta eboluzioa

AEB eta Kanadako zenbait ikerlarik gizakiok aurpegiarekin egiten ditugun adierazpenen nondik norakoak aztertu dituzte, eta ondorioztatu dute horietako batzuk ez direla gureak bakarrik.

<http://ttiki.com/34879> (Gaztelaniaz)

Hotzetako kutsadura

Ohikoa izaten da udan, antizikloia dagoenean, eguratsuko airea ez berritzea eta ondorioz hiri handietan arnas arazoak izatea poluzioaren eraginez. European urtarrilean eta otsailan egon den antizikloiaren eraginez hiri handietan –Paris kasu– alarma gorria piztu da, egurra erretzen duten berogailuek igorritako partikulen kopuruagatik batez ere.

<http://ttiki.com/34880> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16